


“Ikuspuntu politikotik, printzipio bakarra dago: gizakiaren subiranotasuna bere buruarekiko. Nire buruaren gaineko subiranotasun nire honek Askatasuna du izena. Subiranotasun hauetarik bi edo gehiago elkartzen direnean hasten da Estatua. Baina elkartze honetan ez dago inolako abdikaziorik. Subiranotasun bakoitzak ematen du bere burutik puska bat, eskubide amankomunak sortzeko. Puska hori, berdina da denontzat. Norberak besteei egiten dien ematea berdina izateari esaten zaio Berdintasuna. Eskubide amankomunak bakoitzaren eskubidearen gainean izarniatzen duen guztion babes besterik ez dira. Bakoitzaren gaineko guztion babes honi Haurridetasuna esaten zaio. Batu egiten diren subiranotasun hauen guztien intersekzio puntuari Gizartea esaten zaio. Intersekzio hau txertatze bat baita, puntu hau korapiloa dugu. Horretarik sortzen da lotura soziala esaten zaiona. Batzuek hitzarmen soziala esaten diote, eta gauza bera da, hitzarmen berbaren ostean loturaren ideia baitago. Argi dezagun berdintasunarena; askatasuna baldin bada gailurra, berdintasuna da oinarria. Berdintasuna, herritarrok, ez da landareak oro maila berean, alegia, belar luzeko eta haritz txipiko gizartea, jeloskeriazko auzotegi bat denak elkarren zikiratzaile; bazik eta, zibilez, dohain guztiek zabaltasun berdina edukitzea; politikaz, bozka guztiek indar bera edukitzea; erlijioz, kontzientzia guztiek eskubide bera edukitzea. Berdintasunak erakunde bat dauka: doako eta derrigorrezko hezkuntza. Alfabetoaren eskubidetik, horretarik hasi behar da. Lehen hezkuntza orentzat derrigor, bigarren hezkuntza orentzat zabalik, hor dago legea. Eskola berdinetik sortzen da gizarte berdina.”

1832ko ekainaren 5ean, Armada Nagusiko ofizial ohia eta errepublikarren artean heroia zen Lamarque jeneralaren hiletak zirela eta sortutako errebolta Enjolras-en altxamendurako prestatzen ari zen. Enjolras-ek, Hugok “demokraziaren soldadu” eta “idealaren mailegu” bezala aurkezten duen gazte benetan ederrak Chavrerie kaleko barrikada zuzentzen du. Tropak inguratutako barrikadaren goitik, bera bezala hiltzeko zorian daudenengana zuzentzen da.

1861



Victor Hugo Bruselasean,  
Pierre Petitek egina.  
MVH © PMVP.

Léon Cogniet: Banderak. 1830ko uztaila ondoren. Orleanseko Arte Ederretako Museoa.



1832an, demokrazia zentsatutako erregimen batean, diskurtso hau nahikoa aurrerakoia bazen ere, ez da hainbesterako 1861ean. Inork ez ezkien seguru noiz eroriko zen Inperioa, ezta eroriko zenik ere. Hala ere, errepublikar erradikalenek ere Enjolras-en programa gutxienezkotzat joko zuket. Ez dira sakonki lantzen ez lan eskubidea, miseriaren aurkako tresna bezala, ezta lanaren fruituen banaketa justua ere. Miseriaren amaiera utopia bailitzan ageri da diskurtsoan. Hugok atzerapauso bat eman eta Enjolras-i modaz pasatuko ideiak eman zizkiola pentsa dezakegu. Askatasuna, Berdintasuna, Haurridetasuna lema bandera batzutan agertu zen Federazioaren Festaren kanpoko hainbat ekitaldietan, 1790eko uztailaren 14ean, oraindik errepublikaren lema ez zela. Pariseko monumentu publikoetako inskripzioa, 1793. urtean ezarria, ez zen nahikoa izan lema legitimitate ukazina emateko. 1831ko jardunaldietan lema agerpen xume bat egin zuen. Horrela ba, normala da Enjolras-ek errealitatetzat ez jotzea. Lema 1848ko azaroaren 4ko konstituzioaren hitzaurreko 4. artikuluan jasotzen da, bertan “familia, lana, jabetza eta ordena publikoa oinarritzat dituela” zehazten delarik. Ozanam-ek, 1848ko apirilaren 15eko hauteskunde legegileetara aurkeztu zenak, lema otsaileko iraultzaren espirtua ikusten du. Ebanjelio honen behin behineko etorrera hiru hitzetan islatzen da: Askatasuna, Berdintasuna, Haurridetasuna.

**GIZA- ESKUBIDEAK**  
**Askatasuna,**  
**Berdintasuna,**  
**Haurridetasuna**